

fiber. werkstoff für feminismus und popkultur Vienako (Austria)
editore gazteen kolektibo batek argitaratutako biurtekari bat
da. Proiektu mediatiko honek bitartekaritza feminista eta queer
egin nahi du kultura herrikoian, eta emakumeen, lesbien eta
transgenero jendearen lana argitara eman. Gure xede nagusiak
dira sistema menderatzaile eta hegemonikoez jardutea, generoen
arteko harremanen perspektiba zehatz bat finkatzea kultura
herrikoiaren barruan, eta masa kultura/pop kultura ulertzea,
baita haien izaera manipulatzailea ere. Aldizkariak kritikak,
artikuluak eta zutabeak biltzen ditu, eta horiekin batera
teoria eta praktika feminista/queer, azterketa kulturalak,
kontsumitzaile kultura, literatura, artea eta diseinua,
komikiak, internet kultura, musika, filma eta telebista.

fiber 2002an fundatu zen. Editoreen kolektibo ireki honek
jende, ideia, testu eta irudien truke etengabea eskaintzen du.
fiber aldizkariak, bere argitaratze jardueraz aparte,
gertakariak eta performanceak ere antolatzen ditu, haien artean
Rampenfiber, 2007an egindako musika feministaren hiru eguneko
jaialdia, zeinean kontzertuak, eztabaidak eta film/bideo
proiektzioak eskaini baitziren Vienan.

kontakt@fibrig.net

www.fibrig.net

www.myspace.com/fibrig